



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO ETA ARABAKO TXAKOLINAKO MAHASTIEN EGOERAREN GAINEKOA, 2019/07/18KOA

Arabako Errioxan uztaileko lehen hamabostaldian ekaitzak izan ziren, zorionez, kalterik ekarri ez bazuten ere. Baina 20-40 litro ur ekarri zuten zonen arabera, eta hori oso onuragarria izan da mahastientzat. Tenperatuak udakoak izan dira eta, ondorioz, laboreen bilakaera normala da.

Arabako Txakolinaren eremuan ekaitz gutxiago izan da, bakarrik 10-15 litro ur utziaz aldi horretan, eta tenperatura epelekin. Hor ere mahastien bilakaera normala da.

Araba guztian mahastiak K egoera fenologikoan daude, aleak ilarraren tamainarekin, hau da, sasoiaren ohikoa dena. Mahatsondo bakoitzeko mahats-mordo kopurua orekatua dago oro har, oso baia askeekin; hori dela eta, gaixotasun gutxiago izango da, etekinak neurrikoak eta kalitatea ona.

Ohiko tratamendu fitosanitarioak egiten ari dira, bereziki oidio edo mildiuren kontrakoak sentikortasun bereziko momentuan gaudelako, mahats-mordoa itxita, egoera meteorologikoak ez diren arren onenak gaixotasun horiek zabal daitezen.

Gauden datan egonda, ezin da ebaluazio zehatzik egin, oraindik bi hilabete falta direlako heltze sasoiaren iristeko, eta ordura arte gauza asko gerta daiteke; hala ere, itxura eta egoera sanitario orokorra bikaina da, izurrite edo gaixotasunik gabe eta zama mugatuarekin. Ondorioz, hasiera batean behintzat, heltze prozesua geldoa eta ona izango da. Beraz, ez bada gertatzen egoera meteorologiko larriarik edo beroaldi handiegirik batere euririk gabe, uzta orekatua izango da etekinen aldetik eta kalitate bikainekoa.

Errioxarako jasotako datuek Arabako Txakolineko eremurako balio dute, non egoera sanitarioa bikaina baita eta etekin aurreikuspenak onak.

Beste alde batetik, Errioxako JDK-ko Kontseilu Arautzaileen Bilkurak erabaki du, irizpide alde handiekin bada ere arloan, zeintzuk izango diren datorren mahats-bilketarako arauak. Mahats beltzetarako etekinak % 110 izango dira (gehienez, 7.150 kg/ha) eta gehieneko babesgarria % 101 (gehienez, 6.565 kg/ha). Upeltegian sartzen den gainerako % 9rekin stock kualitatiboa eratu ahalko da. Mahats zurien

kasuan, etekina % 106 izango da (gehienez, 9.540 kg/ha) eta gehieneko babesgarria % 101 ere bai (gehienez, 9.090 kg/ha).

Transformazio etekinari dagokionez, upeltegian, 71 litro ardo izango da 100 kg mahats bakoitzeko oro har eta % 65 Mahasti Berezieta Ardoen Errioxako JDKn sortutako kalitate figura berrirako izango diren ardoetarako (% 65).

Guardia, 2019ko uztailaren 18a.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua